

# Txillardegiren kolega gazteak

■ Durangoko Gazte Kultur Guneak omenaldi hunkigarria eskaini zion. ■ Heptalogo bat irakurri zuen.

Txillardegik urte batzuk gutxiago ditu atzodanik. Adinoko lider batek har dezakeen omenaldirik hunkigarriena hartu zuen Durangon, bertako Gazte Kultur Gunearena. Kantariak, dantzariak, bertsolaria eta lore sortak izan ziren, omenaldi guztietan bezala, eta ondoren omenduak, Txillardegik berak, bere bizitza gidatu duten zazpi ideia, zazpi gomendio eman zizkien gazteei.

DURANGO  
Joxean AGIRRE

Ez dira gazteak omenaldien zale. Salbuespenak egiten dituzte, ordea, eta atzo egin zuten salbuespen horietako bat Txillardegirekin. Aurrekuak, Unai Iturriagaren bertsu bat, diskurtso sutsuak eta «Aupa Txillar!» batzuk ikusi eta entzun ziren, baina ekitaldiko zatirik politena Txillardegiren beraren diskurtso bitxi eta laburra izan zen.

Hasi baino lehen kartzelara kondenatu dituzten HBko mahaikideak gogoratu zituen. «Ni ere mahaikide izan nintzen bost urtez eta ez dauzkat bost urte horiek ahazteko. Txalo bat, beraz, hogeita hiru mahaikide lagun maiteei», esanez hasi zen.

«Aitor dezadan poz handia, poz sakona hartu dut —segitu zuen— omenaldi honekin. Lau aldiz aitona izanik eta erretiratzeke garaian nagoela, ez baita gauza ederragorik gazteekin elkartzea baino. Hala ere, zazpi ideia, zazpi proposamen egingo dizkizuet. Adinagatik edo atrentzia hori barkatuko ahal didazue», esan zuen.

Aurrean berrogeiren bat gazte zituen entzuten Durangoko Santa Ana plazan, tablatu xumearen inguruan zirkulu erdia osatuz. Hamabi t'erdietako meza bukatzean jende edadetua atera zen Santa Ana elizatik eta haietako asko ere ikusmiran geratuak ziren, bigarren zirkulu erdi bat osatuz.

«Ez zaitzete inoiz modaren morroi izan —aldarrikatu zuen Txillardegik bere lehen ideia nagusia—. Izpiritu kritikoa iri eutsi iezaiozue eta zeuen buruarekin pentsatu beti. «Asko, sakon eta etengabe irakurri —aldarrikatu zuen bere bigarren *leit motiv*—a—. Bestela erabiliak izango zarete». «Mesfida zaitzete mundutar arrakasta eta txaloak jasotzen dituztenekiko», esan zuen. «Ez inoiz taktikakerietan ibili, ez eta azpijokoetan ere, eta gazte zaretan bitartean gutxiago». aldarrikatu zuen bere heptalogoaren laugarren agindua.

«Aupa Txillar!»

«Kondaira ez da inoiz errepikatzen —esan zuen ondoren—. Soluzio berriak behar ditugu herri



Txillardegik, omenaldiko una batean.

Julo CALL EJA

honetzat, zaharrek ez digute balio». «Gaztetasunaren indarrak baliatuz, aurrera egin behar duzue», esan zuen, eta zapigarren ideia honela azpimarratu zuen: «Egon zaitzete beti zapalduen alde eta zapaltzaileen kontra. Izan zaitzete abertale eta aldi berean joka ezazue gizarte doilor honek zapaltzen dituenen alde. Kontserbadore guztiei egurra!! Jauntxoiei egurra!!» egin zuen dejarar.

Ondoren, tonua jaitsiz, bere baikortasuna agertu zuen: «Nire

68 urteotan ez da inoiz Euskal Herria gaur bezain abertzale eta euskaltzalea izan. Nik ez dut ikusiko, baina zuen ikusiko duzue Euskal Herri hau libre. Gora Euskadi Askatuta!», esan zuen.

Entzuten zeuden gazteek txalo egin zioten. Antolatzaileen izenean hitz egiten zuen aurkezleak «Aupa Txillar!» esanez bukatu zuen bere jarduna.

Omenaldia Andoni Tolosaren kanta batzuekin hasi zen. Unai Iturriagari tokatu zitzaion ondoren txanda eta honako bertsu

hau kantatu zuen: «Pentsamenduaren krisia dago, nor da intelektuala?/ holakoetan eskergarri da zure txapelan itzala/ ikusten duzu gazte artean jarraitzailerik badela/ zure liburu eder batean irakurri nun behinola/ batzutan zuzen, bestetan oker, baina beti radikala».

Neska batek aurrekuia egin zuen segidan eta lore sorta bat eskaini zion azkenik. Aurkezleak Txillardegiren biografia glosatu zuen ondoren eta bi mutil gazteren aurrekuaren ondotik oroi-garri bat eman zioten.

<p>ANESTESIA</p> <p>Gu (CD -MC)</p>	<p>H.MONTOLIA</p> <p>Hemen (CD -MC)</p>	<p>ASKOREN ARTEAN</p> <p>Dastola Berria Eraik Dezagun Zuberasan (CD -MC)</p>	<p>2KATE</p> <p>Bide Laburra (CD -MC)</p>
<p>SKUNK</p> <p>Lanktalo (CD -MC)</p>	<p>SU TA GAR</p> <p>Agur Jauna Gizon Txuriari (CD -MC)</p>	<p>F.MUGURUZA ETA DUT</p> <p>Iraki Ateak (CD -MC)</p>	<p>KASHBRO</p> <p>Distantzia (CD -MC)</p>